


Astekaria



elgoi



**Mugarik gabeko
maitasuna**





SEGUROS

**MIGEL ANGEL
CANALES**

SEGURITATEA PREZIORIK ONENEAN

San Frantzisko 42 - Tel. 74 28 64 - ELGOIBAR





1.000

ELGOIBARKO IZARRA Elkartearen BAZKIDE KANPAINA



Elgoibarko GAZTERIARI zuzenduriko

MANIFESTUA

Askotan entzun izan dugu, nagusien ahotik ia beti, gazteok garela etorkizuneko zutabeak, gure esku egongo dela hurbileko etorkizuna. Eta neurri batean zuzen dabiltzala onartu beharko dugu, hemendik hamar-hamabost urtera gure eta gure adineko jendearen arduraren egongo baitira gizarte honetako hari nagusiak.

Hori horrela bada, geroko zain egon beharrean, zergatik ez ardurak oraintxetik hartzen hasi? Hauek mota askotakoak izan badaitezke ere, guri dagokigunean badaukagu benetan kezkatzen gaituen bat: Euskararen eta euskaldunon etorkizuna.

Seguru gaude zu ere euskalduna zaitugula eta euskararen aldeko hamaika ekimenetan parte hartutakoa zarela. Manifestu hau euskararen aldeko sentimendu hori elkarte egituratu eta antolatuan azaltzeko gonbidapena da. Euskaldun izateko daukazu gogo hori, zu bezala sentitzen duten gainontzeko gazteekin konpartitzeko eta aberasteko proposamena. Azken finean, egun sakabanatuta dauden sentimenduak eta ideiak bateratu eta indarrean jartzea da gure desioa.

Eta oraingoz aukera hoberik ezagutzen ez dugunez, guk **ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA**ren aldeko apostua egin dugu. Elgoibarren 32 urtean euskararen eta euskaldunon biziaren alde lan ugari egin duen Elkarte izanik, konfiantza osoa eskaintzen digu eta protagonista izan nahi dugu bere etorkizunean. Izan ere, halakoren batean Elgoibarren euskararen bizitza ziurtatzen badugu, gu ere han izan ginelako pentsatzeak satisfazioz beteko gaitu.

Manifestu hau euskara maite dugun gazteok Elgoibarko Izarraren bueltan biltzeko deia da, **Elkarteko bazkide izatera animatu nahi zaituztegu**. Besteak beste, eta arrazoiak asko badira ere, ezin baituzue ahaztu euskara zuentzat garrantzi-tsua bada, zuek ere garrantzitsuak zaretela euskararentzat. Elgoibarko Izarrak behar zaituztela, zuek Elgoibarko Izarra behar duzuen bezala.

Besterik gabe, gure gonbitea aintzakotzat hartuko duzuen esperantzarekin, urte berri on bat desiatuz, aipatu egun eta tokian sinatzen dugu Manifestua.

Elgoibarren, 1996-1-12



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:
Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:
Andres Alberdi.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:
Maite Rementeria.

PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:
Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Pello Arrieta, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, KOKOE, Eurne Korta, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale
LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Euskara kontuak

Badira aste batzuk elgoibartarron “euskalduntasun” kopuruaren gaineko datu batzuk jaso ditudala. Benetan datu deigarri eta aipagarriak iritzi, eta tarte honetara ekartzeko modukoak iruditu zaizkit.

Zer esan nahi ote du zuentzat gure herriaren %56a euskalduna dela entzun edo irakurtzeak? Nik bi gogoeta egin ditut honen kontura, edo %56a bakarrik sentitzen dela euskaldun edo %56ak bakarrik dakiela euskaraz. Bietako zein ote da erantzun zuzenagoa? Ba al dago hau interpretatzeko beste erarik?

Beste datu batek ia-euskaldunak aipatzen dizkigu. %14ak bere burua ia-euskalduntzat hartzen duela dioenak hain zuzen ere. Honen harira beste galdera sorta bat sortzen zait. Zeintzuk ote dira ia-euskaldunak? Zer esan nahiko ote da honekin?

Inkesta eta azterketa guztietan gertatzen den bezala beti aurki daitezke era bateko zein besteko iritziak, jarrerak... biltzen dituen zakua, beraz, badirudi hori dela ia-euskaldunen taldeak betetzen duen funtzioa, euskaradun eta gazteleradunen arteko erdibidean daudenak batu.

Erabilerrari dagokionez %31koa dela dio beste datu batek. Nola liteke hau euskararen ezagupena %60koa bada, orohar herritarren erdiak baino gehiagok dakienean euskaraz? Zertan ote dago hutsunea erabilpen hori ez gauzatzeko?

Erabilera aipatzean euskararen erabilera

mintzatua eta idatzia banatu beharko ditugu. Honez gain adinaren arabera ere aldatu egiten da euskararen presentzia, zaharrak eta haurrak izanik gehien erabiltzen dutenak eta gazteak eta helduak gutxien hitz egiten dutenak.

Giroa eta auzoari dagokionez ere ezberdintasunak bereiz daitezke, poteo edo txiki-teo gisa ezagutzen dugun giroa izanik erdal-dunena eta Altzola eta San Roke auzorik euskaldunenak.

Elgoibarren kaleratze prozesuan dago euskara baina oraindik, erdara da mintzatuz zein idatziz gehien erabiltzen den hizkuntza.

Oso datu garrantzitsuak dira hauek gutxiak, euren bidez ezagutuko baitugu elgoibartarron irudi linguistikoa.


Ez gaude egoerarik onenean, badaude gurea baino “herri euskaldunagoak” (euskarra gehiago erabiltzen dutenak) baina ez da egoerarik txarrena ere gurea. Diot ez dela egoerarik onena baina %94,2a euskara indartzearen alde azaltzen dela irakurtzeak itzaropena eta esperantza pizten dizkit, borondatea badagoela adierazten baitute.

Datu adierazgarri hori ikustean euskararen normalizazioari begira gure herrian aurrerapauso ugari eman daitezkeela uste dut.

Dirudien euskararekiko iritzi teoriko hobea dugu elgoibartarrok. Iritzi nagusiek euskararen balioa azpimarratu eta euskararen etorkizunaren aldeko apostua egiten baitute.

Deñe Zabalo

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

"Mintxetan kirola egiten dugunok aseguratuta al gaude?"

Udal kirol teknikariarekin egon gara eta berak esan digunez Ardura Zibila (Responsabilidad Civil) denek dute babestuta. Hala ere, norbaitek aseguru zabalagoa egin nahi izanez gero, 1.400 pta.gatik aseguru partikularra egiteko aukera dauka.



KEXAK

Urasandiko emakume batek deitu digu Udalari bere kexa helarazteko. Herri erdia ezezik, auzoak ere berdin zaindu behar direla esan nahi dio Udalari, auzoak zergak ordaintzeko bakarrik ez baitaude. Adibide bat jartzeagatik, Urasandiko bidegurutzean dauden panelen egoera penagarria eta lotsagarria ikustera joateko esan digu.



TXALOKAK

- Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Ego-Toki elkarte publikoki txalotu nahi du Juan Mugerzaren oroimeneko krosean, altabozetako jardunean euskarak izan zuen tratamenduagatik.

- 5. mailako neskek Ikastolan Gabonetan zinea antolatu zutenak txalotu nahi dituzte.

ESKUTITZAK

Udal Liburutegiaren erantzuna abenduaren 22an agertutako kexari

Udal Liburutegiak kurtsoan zehar hiru edo lau ekitaldi antolatzen ditu IRAKURKETA SUSPERTZEKO, Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntzari esker. Normalena iruditzen zaigu, eta horrela eskatzen du Jaurlaritzak, ekintza horiek Liburutegian bertan burutzea. Liburutegia hiru hilabetero bi orduz ixtea ez zaigu denbora galtzea denik iruditzen, beste ordu guztiak aprobetxatzen badira.

Liburutegiko mahaiak launakoa dira, banakakoak toki asko hartzen baitute. Liburutegi baten helburuak, UNESCOk dioenez, hauek dira: irakurketa, informazio kontsulta eta ikasketa bakarka. Beraz, TALDEKO LANAK ezin dira bertan egin, zarata sortzen delako eta lanera datozenak molesta-tzen direlako.

Udal Liburutegia

bihurtzen dute. Irabaztea da beren helburua; sarrera gogorak, irainak, harrokeria, bultzadak, hitz txarrak eta mehatxuak dira beraien arauak. Baina txarrena, ekintza horiek guztiak ikuslegoaren baimenarekin suertatzen direla da. Zenbat eta indarkeria handiagoa, orduan eta txalo gehiago entzuten zen, jakina, beti talde bati zuzenduak. "Hil ezazu", "Hijo p...", "Aurpegira", "Apurto iezaiozu hanka bat" eta abar dira entzun nituen oihu adoretso eta kaltegarri batzuk. Baina entzun nuen hitzik negargarriena "españoles" izan zen: lotsagarria. Mesedez, lerdokeria hauek esaten dituzuenoi: elkarren arteko lehiak ez du bortizkeria esan nahi. Talde bat animatzeko ez da bestea gutxietsi behar. Irabazteko grina ez da irabazi beharra. Baina, batez ere, jokatzera doan jendea Elgoibarko jendea dela ulertu behar da, gure artean bizi dena. Nik uste dut ikusizun negargarri honek ez duela Elgoibarko jendearen izaera adierazten baina hori datorren urtean egiaztatatu beharko dugu.

Alberto Iriondo Gonzalez

Negargarria

Badakit errugabeek errudu-nengatik ordaintzen dutela, baina ezin da utzi aipatu gabe Gabonetako Futbito Txapelketako jokalarri batzuen eta ikusle batzuen (askoren) jarrera.

Lagun arteko joko bat izan litekeena, "Rambo" batzuek gerra

Okerrak zuzentzen

Joan den asteko BARREneko Eskutitzen atalean agertu zen "Azken hitza herriak" izenburupeko gutunak ez zeraman sinadurarik. Eskutitzaren bukaeran Elgoibarko Uri Buru Batzarra jarri behar zuen. Beraz, "Azken hitza herriak" eskutitza Elgoibarko PNVk idatzitakoa zen.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratu a Kontxa Azkuek lagatakoa da. Dagoeneko asmatuko zenuten Nazioarteko Juan Mugerza Kros egunean ateratakoa dela. 1968. urteko irailaren 21ean atera zuten Lerungo futbol-zelaian.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak: tente, ezkerretik hasita: **Felipe Arozena, Mamo Wolde eta Ignacio Iriondo.** Belaunikatuta: **Angel Atristain eta Julian Iriondo.**

"Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak 1995"

SARI BANAKETA

NOIZ

Urtarrilaren 18an
osteguna
Arratsaldeko 7etan

EGITASMOA

- X. Prosa lehiaketako sari banaketa.
- ALBERTO MAGOA: Majia berria eta klasikoa
- XV. Etxegiña Bertso Paper lehiaketako sari banaketa.

NON

Herriko Antzokian

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO ALDUNDIA



Nahasketaren aberastasuna

Ana Zabaletak orain lau urte ezagutu zuen Raf Nijs. Raf-ek 41 urte ditu, flamendarra da, Belgikakoa, Gante herrikoa. Anak badu lagun elgoibartar bat Belgikako emakume batekin bizi dena. Bikote hau baserria berreraikitzen zegoen eta, "Raf Belgikatik etorri zan teilatua konpontzera". Bizitzan dau-den "kasualitateetariko" bat izan zen. Era batera edo bestera, adreilu eta egur artean zerbait berezia sortu zen bien artean eta bi urte "bera etortzen edo ni juten" ibili eta gero, Raf Elgoibarrera etorri zen bizitzera, "Euskal Herria asko gustatzen zait, jendea, jaiak eta klima. Oso hozbera naiz eta hemengo klima epela niretzat zoragarria da". Lagunak botatzen ditu faltan, "baina urtean pare bat aldiz ikusten ditut eta idazten diet". Eta atentzioa deitu dio, "kaleetan dagoen bizitzak eta zenbat jendeak egiten duen auto-stop". Halere, gehien gustatzen zaiona zer den galdetze-

an, "nire emaztea" aitortu digu. Familiek ez zuten inolako eragozpenik jarri baina zoritxarrez bi familiek bat egiten dutenean ezin izaten dute zuzenean hitzegi, Anaren gurasoek ez dakite eta neerlandesez ezta frantsesez ere, eta Raf-enek "ez dute gaztelera hitzegiten". Bikoteak egin behar izaten du itzultzaile lana.

Sei urte igaro dira elkarrekin daudenetik eta bi seme-alaba dituzte, "Adrian eta Julia". Amak euskaraz hitzegiten die, aitak flamenkeraz eta euren artean gaztelera hitzegiten dute, "kultura ezberdinekoak izatean beste herri bat barrubarrutik ezagutzeko aukera ematen du". Orain, Raf etxe bat eraikitzen ari da Mutrikun eta bertara joate-

Gaur egun, munduko herrialde ezberdinetako bizilagunez osatutako bikoteak ugaritzen ari dira. Elgoibarren bertan badira horrelako bikoteak, batzuk hemen bizi direnak eta beste batzuek kanpora alde egin dutenak. Kultura, hizkuntza diferenteak, azalaren kolore ezberdina... Horiek guztiak, oztopo izan gabe, osagarriak izaten dira. Eta aberasgarria izan ohi da hauen esperientzia. Guk hemen jaso ditugunen arabera, behintzat.

kotan dira bizitzera "halere, batek daki hemendik aurrera zer etorriko den". Anak behintzat, ez luke pegarik jarriko Belgikara joateko bizitzera, "asko gustatzen zait Gantes. Bertan munduko biztanle sentitzen zara, arraza, musika, ikusizun ezberdinak daude...".



Iñaki Ansolak 1986an ezagutu zuen Brasil. Erakarri egin zuen herrialde hark eta, 86an ezezik, 87an, 89an eta 90ean ere bueltatu zen, "88an ezin izan nuen, istripu baten ondorioz igeltsua neukalako". 1991n, "Brasilen geratzeko momentua zela erabaki nuen". Ordurako Marina Barbosa ezagutzen zuen eta 1992an ezkondu egin ziren. Bahian bizi dira, "nire bizitzako fase berri bati hasiera emateko toki aproposa zen". Maitasuna batetik eta bizitza berri bati ekiteko gogoia bestetik, nahikoa arrazoi izan ziren Iñakik eszedentzia eskatu eta haruntza joateko. Familia biek ondo hartu zuten, "gustukua bada, nungua dan gitxiene-kua". Kultura ezberdinak dira, "baina ezberdin izateagatik hain zuzen, osagarriak ere badira". Esperientzia aberasgarria bizi du Iñakik, "gauza batzuk atseginak ez izan arren, gustura sentitzen bazera dana onartzen dozu. Ez da

gauza arrazional bat, sentimendu bat, intuizio bat baizik". Bere hitzetan, kultura ezberdina izateak ez du bikotearen harremana baldintzatzen, "bikotiakin gustura bazaude egon daitezkeen diferentzia guztiak txikixak dira eta interresgarriak gainera". Iñaki irakaslea da eta Marina kontablea. Orain Ikasketa Zentru bat irekitzekotan dabilta, "horrek ez du esan nahi betirako Brasilen geratuko naizenik. Nahiko flexiblea naiz eta behin joatea erabaki nuen bezela, hemendik urte batzuetara bueltatzea erabaki dezaket". Printzipioz, portugesa hitzegiten ikasi du eta Brasil-eko klima oso gustuko du, "batazbesteko tenperatura 25ºtakoa da. Pribilegiatua, eguzkia egunero ikusten da". Halere, gurasoei astero idazten die eskutitz bat eta haiek bi astean behin telefonoz deitzen dute, "ni urtean behin etortzen ahalegintzen naiz eta beti Mausitxako gaztaia eramaten dot".

Laurentino Gil-en aita hil zela eta, amari oporrak alaitzeko asmoz Colombiara joan ziren, arrebaren etxera. Alba Luz Manrique arrebaren laguna zen eta haren bitartez ezagutu zuen. Halere, maitasuna, itzuli baino astebete lehenago sortu zen, “onena bukaeran”. Hilabete pare bat eman zuten idazten, telefonoz hitzegiten... eta ezkontzea erabaki zuten, “abenduaren 27an ezkondu ginen, ezagutu eta hiru hilabetera”. “Ia 30 afari irabazi ditut lagunek ez baitzidaten sinisten ezkondu egin behar nuenik” esan digu Laurentinok. Anekdotarik ere badu kontatzeko, “jende nagusiak, Colombiako emakume batekin ezkondu behar nintzela jakitean, lumaz beteriko indiar bat imajinatzen zuen”. Erabakia ez zen erraza izan, Albaren hitzetan, “nire lana, familia, lagunak... dena utzi dut gizon honegatik”. Elkar ezagutzen ari dira eta beraien begietan nabarmena da ilusioa. Poliki-poliki bata bestearekin bizitzen ohitzen ari gara, “ohean elkarrekin lo egin eta bata bestearen ukabildakadak aguantatzera”. Hizkuntza aldetik ez dute arazorik, “nahiz eta hitz batzuk esa-

nahi ezberdina duten”. Hori bai, Alba harrিতa geratu da hemen erabiltzen diren biraoak entzutean, “Colombiako telebistan, biraoak zentsuratuak daude”. Hamar egun inguru daramatza Albak Elgoibarraren, “izugarrizko lasaitasuna dago. Ni Medellin-en bizi nintzen eta hura oso estresantea da”. Inportazio eta esportazioan egiten zuen lan Colombian, “esperien-tzia eta ingeleza izategatik lana topatzea errazagoa egingo zaidala uste dut”. Momentuz ez dute haurrik izaterik nahi, “lehenengo gu geu elkar ezagutu, herria, ohiturak ezagutu... gauza asko dago”.



Carlos Agirrek Habanan ezagutu zuen Zoila Rosa Palau Inñurrieta, “birraitona euskaldun petopetoa zen”. Lau urte pasa dira ordutik eta ia zko abuztuan ezkondu egin ziren. Zoilak Carlos Cubara joatea nahi zuen, “baina, egoera hemen hobea da, lantegian fijo egin zuten Carlos, pisu batean sartu berri zen eta azkenean neu etortzea erabaki genuen”. Abenduaren 1ean iritsi zen Elgoibarrera, “begiak lehenengo aldiz irekitzea bezela izan da. Dena da berria.” Esate baterako, “euskaldunok oso altu hitzegiten duzue. Hasieran, Carlos oihuka ari zela eta haserre zegoela uste nuen”. Era berean, “Cuban Coca-Cola bat hartzea lujo bat da, hemen gauzarik normalena. Familia botatzen du batez ere faltan, “eta salsa musika, hemen “bacalaoa” bakarrik entzuten da”. Carlosek ere cubarren ohi-

tura berezirik ezagutu du, “etxeko txokorik altuenean eztiz betetako baso bat jarri du Zoilak, barruan bere eta nire izena idatzita zeukan paper bat sartuta. Giroa gozatzeke omen da, senar-emaztean harremana ona izateko”. Harrera ona izan duela esan digu Zoilak, “lagunek, familiak oso ondo hartu naute, asko laguntzen didate”. Carlosi esan zioten ea nolatan okurritu zitzaion Cubara joatea neska bila hemen horrenbeste izanda baina, “hori ez du norberak aukeratzen”. Zoila oso erlijioso omen da, “nire santua Reglako amabirjina da. Zin egin nion, gauzak ondo ateratzen laguntzen bazidan, Carlos bere aurrera eramango nuela”. Elgoibarraren gustura egon arren, Zoilak aitortu digunez, “Carlosek esan zidan 25 urte egingo ditugula hemen eta beste 25 Cuban”.



TINDATEGIA



Foruen enparantza 4
Tel. 74 00 91

KAROBI PUB



Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37



MALAPE

ASTE HONETAN

Maitasunagatik dena laga nuen

Parisen jaiotako frantses batek atzerritar batekin bizi izandako eta oraindik bizi duen esperientziari buruz hitz egingo dut artikulu honetan. Parisen jaioa naiz eta 24 urte t'ardi daramatzat hemen. Nolatan? Matiasunagatik. Oporretan Portugalera nindoala Caparroso inguruan auto istripua izan genuen eta horrela ezagutu nuen nire maitea. Berak ez zuen frantsesik hitz egiten eta nik ez nuen gaztelaniaz tutik ere ulertzen. Bederatzi hila-betez, hilean behin ikusten genuen elkar, berak 1.000 kilometroko bidaia egin eta gero. Horrela ibiltzeko gogorik ez eta, erabaki bat hartu beharra zegoenez, ezkondu egin ginen, han, Frantzian. Ez neukan hain goiz ezkontzeko asmorik baina distantzia handia dagoe-nean planteamendua ezberdina da.

Hona etortzean eta etxea uztean gurasoek hartu zuten disgusturik handiena. Gogorra izan zen beraiantzat, eta niretzat gogorrena nire ahizpa bikiarengandik banatzea izan zen. Lille-eko Pasteur Institutuan neukan lana gaintzeko eta dena maitasunagatik utzi nuen. Banoa! Ez nuen Elgoibar ezagutzen, senarra ere gutxi. Gaztelaniaz hitz batzuk baino ez nekizkien.

Gogoan ditut hona heldu nintzeneko egunak. Minifalda eta bota altuekin jantzita, Frantzian gazteok jazen genuen eran, ilea motz-motz eta horihoria. Txokea izan zen, zure herria ez den leku batera egokitzen jakin behar duzu.

Hasieran ez zitzaidan bat ere gogorra egin. Senarrak naizen bezala onartu ninduen. Uda zen eta ez nuen inor ezagutzen. Negua gogorragoa egin zitzaidan, jendea ezagutu nuen baina izugarri igartzen nuen familiaren falta. Arazo bat nuenean, ez nekien nori kontatu, une hartan familia alboan eduki nahi nuen.

Nire bizitza, herria, hizkuntza, kul-

tura... dena aldatu zen. Hizkuntza ikasi eta hemengo bizimodura egokitu beharra. Han utzitako mundua ezin hemen edukitzea eskatu, moldatu egin behar. Hala ere, bizitza komodoa izan dut eta ondo hartu ninduten Elgoibarren; gertuagokoak diren beste asko baino hobeto.

Paradoxak ere gertatzen dira. Nongoa naizen galdetzen didatenean ez dut jakiten zer erantzun. Toki guztietan sentitzen zara atzerritarra. Frantziarrentzat espainiarra naiz, eta hemen, berriz, "la francesa" esaten didate. Nagoen lekukoa naizela esango nuke.

Maitasunean, bizitzan bezala, elkar errespetatzea da sekretua. Pertsonak errespetatzen bazaituzte zure herrian bezala sentituko zara edonon.

(Erredakzioan itzulia)




JACQUELINE CARLIER

Joango al zinateke atzerrira bizitzera maitasunagatik?



M.DOLORES BERISTAIN
40 urte, etxeoandrea

Asko betetzen nauen maitasuna bada joango nintzake, probatzera behintzat, baina hizkuntzan kontu hori muga haundixa izango litzake.



RAUL AMADO
15 urte, ikaslea

Bai, maiteminduta egongo banintz bai. Eragina izan dezake bikotearen harremanetan kultura ezberdina izateak baina maitasuna badago...



ANGEL CANABAL
61 urte, jubilatua

Seguruenik bai. Hizkuntza eta kultura ezberdinek ez nindukete atzera botaraziko, nahiko erraz egokitzen naiz toki ezberdinetara nahiz eta neure jaioterrria faltan bota.



PILI VICENTE
25 urte, langabetua

Oso maiteminduta egongo banintz bai. Halere, bertoko batekin ezkondu nago eta zenbait gauza zailak badira, imajina nola izango litzatekeen atzerritar batekin.



PILAR ORTIZ DE ZARATE

58 urte, etxeoandrea

Ez, inolaz ere ez. Ezingo nuke herria laga eta gainera hizkuntza eta kultura ezberdinei aurre egiteak bildur piskat ematen dit.



ANASTASIO ZEARSOLO
52 urte, mekanikoa

Solterua egonez gero bai, baina asko gustauta, enamorauta. Hizkuntza alde-tik traba haundixak eongo liake, baina ohitxuretara eingo nitzake azkenian.

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

**ASESORIA
COOP**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

■ Beherapenak

Beherapen garaiari gaudela eta Elgoibarko Kontsumitzaileen Bulegoak hainbat aholku eman ditu erosterakoan aintzakotzat hartu behar direnak. Apurtutako artikuluak, beherapenetrako espreski egindakoak eta beherapenak hasi aurretik saltzaileak erositako produktuen salmenta bedekatuak ditu legeak. Saldoak eta likidazioak ez dira beherapenak. Beherapenetan zerbait erosiz gero, tiketa eskatzea, kalitatea berdina izan dadila ziurtatzea, etiketarik gabekoak ez erostea eta itzultzeko aukera eskaintzen duten saltokietan erostea gomendatzen du. Kreditu txartelak normalean onartzen dituzten tokietan beherapenetan ere onartu beharra dute.

■ Intsumituen aldeko plataformaren bilera

Datorren asteartean, hilak 16, intsumituen aldeko plataformaren bilera izango da Kultur Etxean iluntzeko 8etan hasita. Era berean, Talde Antimilitaristak taldeak astelehenero bilera egiten duela gogorarazi nahi du eta intsumisioarekin lotura duten guztiei ager daitezen gonbitea luzatu. Bilerak astelehenetan egiten dituzte gaueko 9,30etan Plaza Txikiko ganbaran.

■ Meza hildakoen alde

Datorren asteartean, hilak 16, Gorostiza tabernak antolatutako mus txapelketako 38 edizioetan parte hartu izan duten hildakoen aldeko meza emango da. Elizkizuna iluntzeko 7etan izango da San Bartolome parrokiari.

■ Zinea ertainetako ikasle eta gurasoentzat

Osasun Heziketarako programaren barruan, "Historias del Kronen" filmea botako da hilaren 23an Herriko Antzokian Institutuko ikasleentzat. Pelikula ikusi ondoren klasean edukia-ri buruz eztabaidatzea omen da programaren dinamika. Gurasoek pelikula bera ikusteko aukera izango dute arratsaldeko 7etan Herriko Antzokian eta segidan bertan planteiatzen diren gaien inguruan hitzegitekoa.



San Antolineko errotondan loreak eta landareak jarri dituzte azken egunotan. Bada urtebete gutxienez eskultura jarri zutela eta belarra hazten zegoenez, ganoraz atontzeko eskatu zion Udalak Aldundiko Errepide Sailari. Loreak eta landareak jartzeaz gain, norbaitek ikutu pertsonala gehitu nahi izan zion dekorazioari inozenteen eguna zela aprobetxatuz. Argazkian txorimaloak ikus daitezke eskulturari margotuta.



San Pedro bailaran jaiotza biziduna egiteko ohitura dute Gabonetan mezak irauten duen bitartean. 1993an hasi ziren auzoko haurrek antzeztutako jaiotza egiten, eta abenduaren 24an, 25ean, 30ean, 31n eta urtarrilaren 6an ematen diote bizitza, azken egun honetan Errege eta guzti. Hona hemen, iazko argazkian, San Pedroko elizan antzeztzen duten jaiotza biziduna.



Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako lehiaketako argazki irabazlea da goiko hau. Urtarrilaren 3tik 6ra erakusketa egin da argazki guztiekin Kultur Etxean. Rosa Alaminok ateratakoa da argazki irabazlea, “Capitol Reef” izenekoa berau. Bigarren saria “Hiru Erregeen Mahaia” argazkiarentzat izan da eta egilea Josu Iparragirre. Sorta bereziaren saria Andoni etxeberriak jaso du hiru argazkiri esker. Hirugarren sari bat ere banatu dute, erakusketara joan ziren pertsonen botuekin aukeratutakoa. Migel Angel Velaren “Piedrafita” argazkia izan zen aukeratutakoa. Epaimahaiko Ongarriko Argazki Taldeko Ramon Ortega eta Jesus Mari Sarasua eta Andoni Goikolea Morkaikoko presidentea izan ziren.



Errege kabalgataren ostean Udaletxeko areto nagusira joaten dira Erregeak urtero opariak banatzera. Herriko gutxitu psikiko guztientzako opariak izaten dituzte eta benetan hunkigarria izaten da ikustea zein emoziorekin jasotzen dituzten opariak. Argazkirako Udal aretoan zeuden guztiak, protagonistak eta ikusleak, bildu ziren.

■ BARRENEk gida komertziala kaleratu du

BARRENEk Elgoibarko eta Mendaroko 1996ko gida komertziala doan banatuko du harpidedun guztien artean asteroko alearekin batera. Bertan Mendaroko eta herriko merkatarik, enpresa eta gremioen helbide eta telefono zenbakiak azaltzen dira. Asmoa herriko telefonoak liburuska batean biltzea izan da, erabilgarritasuna bilatzea izan delarik helburu nagusia. Edozein merkatarik zuzenketaren bat edo aurtengoan agertu ez eta bere izena hurrengoan azaltzea nahiko balu, BARRENEko 74 41 12 zenbakira dei dezake.

■ Ikastaroa gurasoentzat

Elgoibarko Herri Institutuko Guraso Elkarteak EHU eta Udalaren laguntzaz, “Heziz Hezi” izenpeko ikastaroa antolatu du herriko gurasoei zuzendua. Gurasoei hezitzaile izateko aukera eskaini nahi zaie psikologia eta pedagogia arloak landuz. Klaseak Euskal Herriko Unibertsitateko psikologia eta pedagogian litzentziatuak diren Isabel Bartan eta Juana M. Maganto irakasleek emango dituzte Lanbide Institutuko aretoan. Urtarrilaren 22an hasi eta apirilaren 1a bitartean luzatuko da ikastaroa, honako egun hauetan izango direlarik klaseak: urtarrilaren 22 eta 29an, otsailaren 5, 12, 19 eta 26an, martxoaren 4, 11 eta 25ean eta apirilaren 1ean. Izenak ematen diren araberaren osatuko da gehienez 25ekoa izango den taldea. Matrikula 3.000 pta.koa da eta izena emateko 74 44 80 edo 74 44 85 zenbakietara deitu.

■ Parrokiako loteria

Abenduaren 22ko loterian sarituak izan ziren parrokiako boletoak kobratzeke dituztenei zera jakinarazi nahi die parrokiak: hilaren 15etik aurrera goizeko 12etatik 1era bitartean ordainduko dela loteria parrokiako bulegoetan (Ubitarte 4).

Bixente Alonso:

"Informatikan ere irudimena behar da"

Gaur egun gero eta gehiago dira beraien enpresa propioak sortzen dituzten gazteak. Horieta bat dugu Bixente Alonso. 31 urte dituen elgoibartar honek Informatika ikasketak egin zituen Donostian. Bukatu eta berehala hasi zen lanean. Gustura egon

arren, bere asmoa bere kontura hastea zen eta asko pentsatu eta gauzak behar bezala neurtu eta gero erabakia hartu zuen. Bixentek Softlan sortu zuen. Enpresentzat programa informatikoak sortzen ditu, besteak beste.

- Lanerako garai nahiko ona tokatu zitzaizun.

- Bai. Nik nahiko erretz topatu naban lana eta horri esker asko ikasi naban, ze gauza bat ikastia da, teoria, eta beste bat lana, hau da, praktika.

- Fijo zeunden lanean. Zergatik utzi zenuen?

- Bueno, hasi nitzanean kontrato minimo bat nakan. Poliki-poliki, gero eta bezero gehixo neuzkan eta ardurak ere gehitzen hasi zian, baina buruan bueltaka nakan nere kontura zeozter jartzeko asmua. Alde batetik kapaza ikusten naban nere burua eta bestetik, urtiak pasa ahala, piskat estankatzen ari nitzala ikusten naban, bai lanian bai eta maila pertsonalioan ere.

- Softlan ireki zenuenean ba zenuen bezerorik?

- Lan eitzen naban enpresan nere klientiak nik bakarrik eramaten nitxun eta sistema informatiko nahiko berezixa zan, enpresan nik bakarrik ezagutzen nabana.. Nere klientiak nerekin jarraitxu zaben.

- Zer eskaintzen du Softlan-ek?

- Enpresen beharretara egokitzen dan sistema informatikoa sortzen dogu, hori da gure lan nagusia. Informatika ezagutzen



"Enpresen beharretara egokitzen dian sistema informatikoak sortzen ditxugu"

dogu eta enpresen beharrak ere badakigu zeintzuk dian. Guk bata eta bestia lotu eta egokitzen dogu. Azken finean, enpresa bakoitzaren ezaugarrien arabera programa informatikoa sortzen dogu, ahalik eta efikazena. Ordenadoreak ere saltzen ditugu, baina azken hau bestearen ondorioa baino ez da.

- Softlan, enpresa bat al da?

- Bai. Momentu honetan bi pertsona gaude lanian baina aurrera begira beste norbait hartu nahi dogu. Hasieran, lokala, azpiegitura, bezero berri-

xak itxia eta beste zenbait kontu zeuden. Oin, esan leike beste fase batian gaudela eta programadore analista bat sartu nahi dogu.

- Langile ezezik, enpresa gizon ere bihurtu zara.

- Bai. Norberan enpresa eukitziak suposatzen dau askoz gauza gehixo euki bihar ditxuzula buruan. Lehen nere ordutegixa nakan, lana ein eta hor amaitzen zan dana. Oin beste ardurak batzuk dazkat, bezeruari gustura geratu dan galdetzia, kompetentzia nola dauan ikusi, merkatuaren aldaketan berri euki... Denbora gehixo kentzen

dia oin lanak, baina gustorago eitzen dot.

- Azken urte honetan jaso duzun gauzarik garrantzitsuena?

- Erlazio pertsonalen mailan asko aberastu naiz. Enpresa munduari eta merkatuari buruz asko ikasi dot... Gauza asko.

- Irudimena behar al da?

- Bai, batetik bezeruak bere beharrak azaltzen dizkizu, ideia batzuk ematen eta zuk horren arabera egokitxu bihar dozu dana, nola lagundu leikixozun, nola hobetu...

- Inbertsio handia egin behar al da?

- Negozio guztiek eskatzen dabe inbertsio minimo bat. Ezinbestekua da, horregatik da inportantia gauzak nahiko seguru euki arte ez arriskatzia gehixegi. Baina inbertsioa inportantia izan arren, hain inportantia da inizatibia eukitzia eta gustuko zeozteran sartzia.

- Zein da zure helburua?

- Epe motzera enpresa kontsolidatzia baliabide material eta pertsonalen aldetik eta epe luzera informatika munduan, programaziua ahalik eta zatirik txikiena izatia eta analisisian eta enpresaren organizaziuan gero eta gehixo sartzia.

Triki BARRREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 19. GEHIGARRIA



Herri Eskolan "Gela berezia" deitzen dena dute. Bertan, arrazoi bat edo beste dela eta, nolabaiteko laguntza berezia behar duten haurrek egunaren tarte bat ematen dute. Argazkian ikusten den bezala, mahai gainean hainbat marrazki jarri eta beste hainbat izen idazten dira. Ikasleak, biak lotu behar ditu, marrazki bakoitzari dagokion izena jarritz. Horiek eta beste asko dira neska-mutil hauek egiten dituzten ekintzak. Klasean beste haur guztiekin badaude ere, bultzadatxo bat ematen zaie saio berezi hauen bidez.

Triki tristea

- Aita, aita, ikus al dezaket telebista?
- Bai, baina piztu ez.



Jakitunen eskutik

Hortzak zaindu egin behar dira

Gabon garaian aho eta hortzak normalean baino gehiago zaindu behar ditugu. Izan ere, garai horretan gehiegi jaten dugu eta batez ere azukre kopuru handia duten elikagaiak izaten dira ahora eramaten ditugunak. Horiek, jakina den bezala, hortzentzat kaltegarrienak dira. Azukrea gauza gozo guztietan dago, besteak beste, opiletan, turroian, postreetan, edari freskagarrietan... Horien guztien artean, gainera, kontuan izan behar dira jatorduetatik kanpo hartzen ditugunak.


Familiarteko jatorduak egiten dira Gabonetan eta ohiturari jarraituz asko jaten da; beraz, oso zaila da kontrolatzea. Horregatik, asko azpimarratu beharra dago jatordu guztien ostean haginak garbitzeak duen garrantzia, batez ere afal ostean.

Garai honetan ezezik, urte osoan zehar ere fluorra duen pasta eta seda dentala erabiltzea gure ahoaren osasunerako ezinbestekoa da.

Gure hortzak ordezkaezinak dira; horregatik, hauen kontserbazio eta mantentimenduak duen garrantziaz kontziente izan behar dugu.



ANTON IZAGIRRE
ODONTOLOGOA



Zer iritzi daukazuElgoibar.....ri buruz?



Elgoibarrek potru txiki bat ematen du, dena mendiz inguratua. Eta erditik, erreka zikin bat pasatzen da.

NOEMI CRESPO, 11 urte.



Herri arunt bat dela uste dut baina beti dugu beste guztien gainetik maite.

ANDER TAPIA, 13 urte.



Elgoibarrek mendi asko ditu. Oro polita da Eibarrekin konparatuta. Ez nintzateke joango beste herri batera bizitzera.

ANE OSORO, 8 urte.



Kucua Dgtg
7 wtvg

Galde debalde

- 1- Kalera atera aurretik zer egiten duzu beti?
- 2- Osasuna, maitasuna ala dirua?
- 3- Zer edaten duzu jatorduetan?
- 4- Nolako da izar bat?
- 5- Zerk ematen dizu nazka?
- 6- Nola konkistatuko zenuke gustuko pertsona?
- 7- Zein kolorez margotuko zenuke zure etxea?
- 8- Zer egingo zenuke ikustezina bazina?

1. Jantzi, orraztu eta batzutan kolonia bota, Nenuco Chip.
2. Osasuna eta maitasuna, ze pobriak diruripe bizi dia.
3. Ura eta konbitiak diazenian Coca-Cola.
4. Esan diate dala ilargixa bezelakua baina haundixaua, baina zela urruti dauan txikixa ikusten dou.
5. Madarixak.
6. Nere etxera gonbidatuko nuke eta gero tabernetara jun egunero, ezagutzeko.
7. Azalan kolorekua, txerri koloria esaten jakona, rosa.
8. Banatorrela jakitzeko bota haundixak jantzi eta isilik ibiltzeko kendu.



Apf gt Atcpl cf k
13 wtvg

1. Lehenengo ondo jantzi eta apain ipini.
2. Osasuna.
3. Gehienbat ura eta egun berezietan Coca-Cola.
4. Gauza handi eta argitsu bat.
5. Porruak patatekin.
6. Nere pertsonalitatearekin.
7. Urdin argi eta zuriz, Errealaren koloreekin.
8. Inozentadak egingo nituzke.

Zer da... *irudimena* ?

MAITE LINARES 9 wtvg



"Irudimena aluzinazioa da."

ANDRÉS EGEA 10 wtvg



"Irudimena basamortuan agertzen den gauza bat da, gero desagertu egiten dena. Oso txarra da!"

ASIER ARREGI 9 wtvg




"Fantasia bat da irudimena. Asto bat hegan egiten ikustea irudimena da."

IVONNE GUTIERREZ 13 wtvg



"Zerbait, mutil bat adibidez, asko gustatzen bazaizu eta ezin baduzu ikusi, leku guztietan agertzen zaizu: ispiluan, telebistan..."

ANTON EZENARDO 10 wtvg



"Ipuinak eta kontakizunak irakurtzean sortzen den pentsamentu polita da, gero idazle ona izateko. Horregatik, irakurtzea ona da."

DEBEKA SALINAS 12 wtvg




"Begiak itxita dituzunean gauza politak ikustea, zuri gustatzen zaizkizunak. Nagusi izatea, adibidez."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



JON SANCHEZ
8 urte
 "Neretzat lagun gehixo, etxerako musika kate bat, herrirako parke gehixo eta mundurako pakea."


MAIDER REJAS
12 urte
 "Mundu osoan pakea egotea eta guztiek guk bezalako janari onak eukitzea. Nik, Burgosen bizi den familia ikusi nahi nuke, iaz ezin izan nuen eta. 1995a urte ona izan zan, ia 1996a hain ona den, edo hobea!"



3. Asmakizunak:

- Puntan punta bi atzean zulo bi
 Zer da?.....
- Zuri-zuri biribil iluntasuna argitzen dabil
 Zer da?.....
- Gorputz mehe eta luze mintzo naiz ahorik gabe
 Zer da?.....

4. Zeintzuk dira errepikatuek dauden bi marrazkiok?



Erantzunak: 1. Antonio Azpilikueta, 2. Zer eskatzen diozu 1996 urteari?, 3. Guraizeak, ilargia eta bolibrotak eta 4. A eta E.

Jon Aranoa

Albaitaritza klinikakoa

● **Zein animalia izan nahi zenuke?**

▶ Hegan egiten daberen edozein, harrapakari bat, arrano bat edo.

● **Diseinatu pertsona bat animalien ezaugarriekin.**

▶ Delfin baten adimena, tigre baten indarra, hontza handiaren harrotasuna eta zaldixan edertasuna.

● **Arraina bazina nongo uretan bizi nahi zenuke?**

▶ Tropiko aldean, Mururoan ez behintzat.

● **Katuak bezala zazpi bizitza izango bazenitu, zer egingo zenuke?**

▶ Lehenengoan biharra ein eta bestietan mundua ikusi eta ikasi.

● **Txakurra al da gizonaren lagun onena?**

▶ Niretzako bai, bost dauzkat etxian. Gizona be lagun ona da.

● **Nori egingo zenioke zaunka?** ▶ Ejerzitoei, batez ere opresoreei.

● **Txori bat bazina, nori eskainiko zenioke kanta bat?**

▶ Jendiatik biharra eitxen daberen pertsoneri.

● **Zein egoeratan izan nahi zenuke suge bat bezain iheskorra?**

▶ Egoera txarrei aurre eitzia gustatzen jata.

● **Zer estaliko zenuke armiarma sare batez?**

▶ Hipokresia, zapaltasunak, gerrak... hainbeste gauza!

● **Bide asko ireki izan dituzu itsu-itsuan, zator batek bezala?**

▶ Bai, bastante inprobisatzen dot. Baina erabaki inportantiak dianian buelta asko emateotzat gauzei.

● **Egin duzun azken astakeria?** ▶ Oin dala urte bi Anboto, Gorbea eta Aizkorri gau baten hasi eta batera ibiltzie, ixa 100 kilometro die.

● **Barraskiloak bezala euritan ala sugandilak bezala eguzkitan?**

▶ Nahixao euritan kasik.

● **Jirafa bat bazina noren leihora luzatuko zenuke lepoa?**

▶ Begiratzekotan zeozer, modelo guapa batengana.

● **Zenbat urte bizi nahi zenuke?** ▶ Ahal dana, baina sano.

● **Birus bat bazina noren gorputzean bizi nahi zenuke?**

▶ Leonardo Da Vinciren pentsamentuan egotia gurako neuke.

● **Karramarroak bezala zure bizitzako zein momentutan egingo zenuke atzera?** ▶ Zahartzaroan.

● **Askotan erabiltzen dozun hitz bat?**

▶ Erderaz "pues" esaten dot asko, euskaldun danak bezela.



DOINUA:

Proporzio bat

“1.000 baietz” da autengo lema
luzatu dute kanpaina,
projektu hori berrindartzeko
era benetan bikaina,
hori lortzeko denen indarra
beharrezkoa da baina
parte hartzeko aukera ederra
daukagu alajaina
etorkizunik nahi baldin bada
indartu behar oraina.

Urte berria hasi orduko
asmo onak barra-barra,
ez da komeni hala ta guztiz
inork galtzea iparra,
euskaltzaleok, denok batera,
egin dezagun indarra,
merezi du ta, bazkide egin,
eskatzen dudak bakarra,
modu horretan su bihurtzeko
euskarak duen txingarra.



JON PELI URIGUEN

KEMEN

Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31



ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Plastikoentzako kontenedoreak jarriko ditu Mankomunitateak

Deba Beheko Mankomunitatea 1982an sortu zen zaborraren bilketa eta eliminazioa herri guztien artean egiteko asmoz. Ordura arte udalerrri bakoitzak bere zabortegia zuen. Gaur egun Arrasatera eramaten da zabor guztia eta bertan erretzen da. Elgoibar, Eibar, Mendaro, Mutriku, Deba, Plazentzia, Mallabia eta Ermuak osatzen dute egun Mankomunitatea. Iaz 20.500 zabor tonelada eliminatu zituzten. Paper eta kartoiari dagokionean 1.500 tonelada inguru berreskuratuta da eta beste 600 tonelada beira.

Juan Ignacio Escalak esan digunez, "Arrasateko zabortegia uztailean ixteko asmoa dago lege aldetik hainbat puntu ez baititu betetzen. Horren aurrean bada proiektu bat, *Zergarbi* izenekoak, Gipuzkoa osoa bilduko lukeena. Helburua, probintzia osoko zaborrak bertara eramatea litzateke baina oraindik ez dago ezer erabakita".

Garai batean zabor guztiak biltzen zituen kontenedore berde horiek baino ez ziren ezagutzen. Bertara botatzen genuen etxeko zabor guztia. Orain urte batzuk beira botatzeko kontenedoreak



JUAN IGNACIO ESCALA
Deba Beheko Mankomunitateko gerentea

ZER/NON

BEIRA KONTENEDOREAK

EZ: Duralax, pirex, lanparak, bonbilak, leihoetako beira, kosmetikako hainbat pote, zeramikazko baxera...

BAI: Edari botilak, maionesa boteak, tomatearenak, kafearenak, koloniarenak... (garbiak eta taparik gabe)

PAPER ETA KARTOI KONTENEDOREAK

EZ: Zelofana, plastifikatuak, tetra-brik-ak...

BAI: Egunkariak, folioak, kartoiak... (plastikoa sekula ere ez)

jarri zituzten eta iaz paperarentzakoak. Escalaren hitzetan, "jendea oso kontzientziatua dago, bakoitzak bere etxean bereizten du zaborra kontenedoretara bota aurretik". Halere, askotan ez dakigu zer birzikla daitekeen eta zer ez, "beira guztiak ez dira kontenedore berdeetara bota behar eta paperarekin beste horrenbeste. Dena dela, guk uste baino gauza gehiago birziklatu daitezke. Jendeak ez daki hau guztia eta horrelako akatsak eginez gero, birziklatzeko modukoa den lehengaita kutsatu egiten da".

Kanpaina bati ekin diote jendeak jakin dezan zer/non bota behar den. Aurten, gainera, laugarren kontenedoreak jartzeko asmoa dute, "latak, tetra-brik kaxak eta bestelako plastikoak jasoko dira kontenedore hauek". Kontenedore bakoitzetik beira, papera eta kartoiak jaso eta gero, zentru berezietan sailkapena egiten omen da, "segun eta zertarako nahi den, kalitatea era batekoa edo bestekoa behar du izan jasotako materialak. Horregatik komeni da gauzak ondo egitea, ahalik eta gehien birziklatu ahal izateko".

ROKE taberna

Eguneroko menuak, bokatak, kazuelitak, pintxoak...

Lagunarteko afariak, despedidak, konbiteak... *Aurrez enkargatu!*

ZUK JARRI PREZIOA ETA GUK MENUA

Erretxindi 1 - Tel. 74 37 60 - ELGOIBAR




Plazako Frontoia (II)

- 1833.ean Domingo Muguruzak, frontoiaren eta ibaiaren artean eraiki zuen bere etxea. Arkitektoa Mariano Jose Laskurain izan zen. Etxe hau frontisaren gainetik nabarmentzen zen, plazako arkitektura multzoari bestelako itxura ematen ziolarik.
- 1834.eko ekainaren 30ean Elgoibarrek, Deba bailara osoarekin batera, uholde handi bat jasan zuen. Zortzi pertsona hiltzeaz gain, kalte handiak izan ziren kale, plaza eta eraikuntzetan. Besteak beste, Andikano dorretxea, bere burdinolagatik ospetsua zena, Deba ibaiak betirako eraman zuen.
- Uholdearen ondorioz, 1840an, lehen gerrate karlista amaituta, frontoiko eskuineko harmora harlanduz berreraiki zen eta honen zoladura ohiko harrobietako harlauzaz berriztu zen.
- 1862 urte hasieran, Diputazioak Udalari Txankakua zubia eraikitzeko proiektua eta

- aurrekontua adierazi zizkion. Proiektu honek, frontisari itsasia zegoen etxea eta zubiko ate arkuduna botatzea suposatzen zuen. Hau aprobetxatuz, frontisa bota eta ibai ertzean berria eraki zuten, gaur egun daukaguna, hain zuzen.
- Frontoi berriaren proiektua Mariano Jose Laskurain arkitektoak aurkeztu zuen 1862ko abuztuaren 31n, balioa 21.640 errealetan finkatuz. Urriaren 5ean enkantea egin zen eta hurrengo urterako amaitu ziren obrak. Ordutik, frontoiko horma biek hortxe dira etxe plazako mendebaldeko angelua itxiz.
- 1863tik gaur egunera arte, zoladurak hainbat aldaketa izan ditu. Urte hartan, Udaletxeko lehen arkuraino harlauzaz egin ondoren, gure mendean, harlauza, lehenengo bost koroatara mugatu zen. Geroago frontoia asfaltatu zuten, eta 1989an berriz ere harlauza ipini zuten.

PELLO ARRIETA



Angel Yudego


Botikaria (1913-1983)



- Urretxun jaio zen 1913ko abenduaren 13an.
- Oso txikia zela bere familia Elgoibarrera etorri zen bizi izatera. Lau semeen artean gazteena zen eta berak bakarrik ikasi zuen karrera.
- Gaztetan motor bat zeukan, asko gustatzen zitzaizkion motorrak.
- Madrilgo farmazia fakultatean egin zituen farmazia ikasketak.
- Gaur egun Yudego botika dagoen lekuan zegoen botika zahar batean hasi zen praktketan.
- Gero traspasoan hartu eta bere abizena jarri zion botika-dendari.
- Pertsona oso ezaguna zen herrian, haurren artean batez ere, beti ematen baitzizkien gominolak botikara joaten ziren haur guztiei.
- Gaur egun bere alaba Elenak jarraitzen du botika-dendarekin.
- “Guayacol” izenez komertzializatzen den erlakiztenentzako (forúnculo) botika egiten zuen.
- 1983ko urriaren 5an hil zen 70 urterekin.



Abenduaren 10ean, 49 urte zituela, hil zen **LUIS MARI MURUAMENDIARAZ** en sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MOTZAK

Bi elgoibartar Aconcaguan

Aitor Argarate "Naparra" eta Jose Inazio Izagirre elgoibartarrak Argentina-ko Aconcagua tontorra igotzeko asmoz joan ziren harantz abenduan beste mendizale batzuekin. Gailurra abenduaren 31n egin zuten, Gabon Zahar egunean. Gailurrera igotzeak dakarren zorianarekin batera ere izan zuten arazorik. Jose Inazio Izagirrek izozte problemak izan ditu oin bietako behatzetan eta zati bat galtzeko zorian egon da. Orain Zaragozako ospitalean dago izozte kontuetan ospe handikoa den hango mediku baten tratamendua jarraitzen eta jakin dugunez, behatzak salbatu egingo ditu ziurrenik. Hirugarren elgoibartar bat ere badabil asmo berdinarekin, Luis Arakistain hain zuzen. Hau ere gailurreraino heltzen saiatuko da.

II. Bolo txapelketa

Elgoibarko II. Bolo Txapelketako lehen tiraldia jokatu da hilaren 20an, larunbata, San Rokeko bolatokian. Hurrengo jardunaldiak hilaren 27an San Migelen, otsailaren 17an San Lorentzon eta finala otsailaren 24an izango da San Pedron, guztiak iluntzeko 8etatik aurrera. Taldeko bost lagunek eta ordezko batek parte hartu ahal izango du. Txapelketa bai banakakoa bai eta taldekakoa ere izango da. Izena emateko Kirol Zerbitzura (74 44 15) deitu edo hilaren 20an, txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago aurkeztu. Txapelketaren ostean afaria egongo da San Rokeko lokal sozialean. Afarirako izena emateko 74 23 36ra deitu. Bestetik, San Bixente egunean, hilak 22, astelehena, meza egongo da San Rokeko ermitan goizeko 11etan.



M. Pilar de La Lama:

"Behobiakoa dut lasterketarik gustukoena"

■ **Berandu xamar hasi zinen atletismoan?** - Bai, duela 4 urte. Lagun batek, Elena Etxanizek korrika egiten zuen. Ama hil ondoren deprimitua zegoenez, korrika egitera joateko esan zidan. Horrela engantxatu nintzen.

■ **Hain erraz engantxatzen al da?** - Bai itxuraz. Argi dagoena da gustatu egin behar zaizula. Hasieran asko sufritzen nuen baina gero hobeto sentitzen hasi nintzen. Edozein egunetan bihotzekoak emango zidala uste nuen baina, keba, zure gorputza ezagutzen zoaz eta uste baino gogorragoa zarela ikusten duzu.

■ **Lehenago ez hasi izanak, ez al dizu penarik ematen?** - Ez. Goiz ezkondu nintzen eta haurrak ere goiz etorri ziren. Lanean nengoen eta gainera asko erretzen nuen. Aldaketa beraz, erabatekoa izan da. Bizitza sanoagoa egiten dut orain.

■ **Kroseean aritzen zara?** - Bai, Gipuzkoako eta Bizkaiko kros herrikoi guztietan, Donostia-Behobia, Santurtze-Bilbo... betikoak, hogeit bat urtean. Marathoi erdiak doazkit hobetoen, baina hala ere, denetik egiten dugu, hiru, sei, zortzi kilometrokoak, hogeita bat artekoak, denak.

■ **Lasterketarik politena?** - Oroitza-



penik politena lehen aldiz Behobiakoa korritu nuenekoa da. Moralki oso prestatua nengoen baina oso gogorra zela entzun nuen. Satisfazio handia izan zen helmugara heltzea. Gainera Behobia da gehien gustatzen zaidan lasterketa.

■ **Konstantea al zara, ala erraz uzten dutenetakoa?** - Ez, oso diziplinatua naiz. Lasterketa batean ondo ibiltzea gustatzen zait, eta ondo egoteko lan egin behar da. Lagatzen baduzu, gero zerotik hastea bezala da.

■ **Helduen artean lehia handia al dago?** - Bai, pike handi xamarra egoten da, baina lasterketan bakarrik. Handik kanpo lagunak gara. Ez pentsa, baina gazte askori izugarriko egurra ematen diegu zaharrok.

■ **Entrenamenduak ere, serio egiten dituzue, ez?** - Bai, astean lau egun 12 kilometro eta igandean 18-20. Orain lasai xamar gabilta Bergarako San Silvestrea korritu baitugu.

■ **Atletismoa al da kirolrik gogorrena?** - Bizikleta ere egiten dut eta gogorragoa iruditzen zait.

- Adina: 40
- Beste kirolrik: bizikleta, gimnasia, igeriketa...
- Korrikalari gogokoena: Martin Fiz
- Urteko sasoirik onena? Udaberria



DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

JOSE ANGEL ZABALA

URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Merkatu Plaza 33-34



Luis Anacabe eta Nicolas Berbell

elgoibartarrak Gabonetan zehar Eibarko Kiroldegian jokatu den afizionatuen Tenis Txapelketa irabazi dute. Pasa den astean jokatu zuten finalaren ostean txapela eskuratu zuen Anacabek (ezkerrekoa), bigarren Nicolas Berbell eskuinekoa geratu zelarik. Elgoibartarrak txapelketako beteranoenak ziren arren, ez zuten arazorik izan gailentzeko. Guztira bederatzi tenislarik hartu zuen parte Eibarko Gabonetako Tenis Txapelketan.

San Anton pilota txapelketa

Lagun Pilota elkarteak antolatutako San Anton pilota txapelketa-ren lehen finalerdiak jokatu ziren iragan den ostiralean Ikastolako frontoian. Jubenilen kategorian Olaizola II.a eta Errandonea bikoteak zazpi tantoko aldea atera zioten Etxaniz eta Gasteziri. 4 1/2ko promesa mailan Larraia eta Berasaluze VIII.aren arteko lehian 18 eta 7ko emaitzaz amaitu zen partidua, Larraia irabazle izan zelarik. Seniorretan, berriz, Berraondo eta Searrak Goñi eta Apeztegiaren aurka galdu zuten, 13 eta 22ko

emaitzaz. Pilota Elkartekoen esanetan, ikuslegoaren artean giroa ona izan arren, instalakuntzaren hozta-zunak ez zuen giroa berotzen lagundu. Jokalaririk aipagarrienak, Olaizola II.a jubenetan eta Goñi seniorretan izan ziren. Azken honen jarduna ikusgarria izan omen zen, ezker aldetik zabalera egindako bi mozketak eta 6 1/2ra egindako ezker gantxo batekin. Hurrengo jardunaldia gaur, hilak 12, izango da. Bigarren finalerdia gaueko 22,00etan Ikastolako frontoian jokatu da .

Futbola

Haundi 1 - Gernika 1
Elgoibar 1 - Beti Gazte 0 (1. erreg.)
Elgoibar 2 - Don Bosco 3 (Jubenilak)
Urola 2 - Elgoibar 1 (Kadeteak)
S. de Herrera 7 - Elgoibar 1 (Infantilak)
Urretxu 4 - Elgoibar 1 (Neskak)

Eskubaloia

Zestoa 11 - Txakakua E. 26 (Seniorrak)

Pilota

San Anton Pilota Txapelketa
Olaizola II/Errandonea 22 -
Etxaniz/Gastezi 15 (Jubenilak)
Larraia 18 - Berasaluze VIII 7
(4 1/2ko promesak)
Berraondo/Searra 13 -
Goñi/Apeztegia 22 (Seniorrak)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

13, larunbata
10,00 Eibar Urko - Athletic (Jubenilak)
12,00 Elgoibar - Real Unión (Kadeteak)
13,45 Gazteak - Beti Sutan (2. erreg.)
17,00 Haundi - Alavés
18,45 Urki B - Antzuola (Jubenilak)
14, igandea
10,00 Eibar - Trintxerpe (1. erreg.)
12,00 Elgoibar - Tolosa (Infantilak)
13,45 Eibartarrak - Aretxabaleta (Jubenilak)
16,00 Elgoibar - Intxaurren (Neskak)
17,45 Urki A - Lagun Onak (Jubenilak)

Eskubaloia, Kiroldegian

13, larunbata
16,00 Txakakua Elg. - Ordizia (Seniorrak)
17,30 Pagoaga Elg. - Mollarui (Kad. neskak)
14, igandea
12,00 Elgoibar - Aloñamendi (Kad. mutilak)

Futbitoa, Urasandin

Igandea, 14 (Arbitraia: Ametsa)
10,00 S. Karapola - Oraiko Disko
Orbela - Kosakos
11,00 S. Pitxote - Karkis
Aterpe - Pedruskos
12,00 Lucky Luke - P.S.K
King Kong - Berrogei Duro



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

BEHERAPENAK

Nafarroa Plaza z/g - Tel. 74 35 83 - ELGOIBAR

PAULO GUERRA: "Elgoibarren irabazteko irrika neukan"

Txapelak neurea izan behar zuen, bazen garaia". Mugerza krosa bukatu ondoren txapela buruan jantzita zuela esan zituen hitzok. "Elgoibarko lasterketa handietako bat da eta berau falta zitzaidan irabaztea". Dudarik ez dago goz aritu zela lasterke-

tan; Guerrak egin zuen azken itzuliak argi utzi zuen portugaldarraren asmoa zein zen: Kimani gainditu eta bakarrik heletzea Mintxetako helmugara. Afrikarrak ere fin aritu ziren; erritmo bizia jarri zuten hasieratik eta gogorren zeudenak bakarrik eutsi ahal izan zioten

haien martxari.

Martin Fiz eta Diego Garcia izan ziren, hala ere, Mintxetako ikuslegoaren artean ikusmin berezia sortu zutenak. Fizek batez ere, lan izugarria izan zuen lasterketa ostean zaletuentzako autografoak sinatzen eta argazkietan azaltzen, modeloak

bezala. Aipatu behar izaz bezala, aurtan ere ez dela elgoibartarrik izan lasterketan. Maiztegi ez ei dabil formarik onenean eta Revueltak Uliako krosa korritu zuen aurreko egunean.



■ ■ Sprint-ean egin zuen Guerrak azken itzulia. Padium-ean, Guerra txapelarekin, Kimani eta Machuka. Fiz lehen euskalduna izan zen.

EMAITZAK

■ Senior gizonetzkoak (10.798 m.):

- 1- Paulo Guerra (31:04)
- 2- Joseph Machuka (31:11)
- 3- Josepht Kimani (31:19)

■ Senior emakumezkoak (5.323 m.):

- 1- Derartu Tulu (17:24)
- 2- Julia Vaquero (17:35)
- 3- Ayelech Worku (17:42)

■ Junior gizonetzkoak (6.880 m.):

- 1- Francesc Vives (22:27)
- 2- Alex Fernández (22:29)
- 3- C. Castillejos (22:34)

■ Junior emakumezkoak (3.900 m.):

- 1- Silvia Montanet (13:30)
- 2- Judith Pla (13:31)
- 3- Rosa M. Morato (13:59)



Bezera eta lagun guztioi urteetan adierazi diguzuen adiskidetasuna eta laguntza eskertu nahi dizuegu.

GORBEA
JATETXEA

Aurten ez da artisautza feriarik egongo San Anton jaietan



Aurtengo San Anton jaietan, hau da, hilaren 17ko goizean, ez da ohiko artisautza feria izango. San Anton jaietan antolatu beharrean, Trinitate jaietara atzeratzea erabaki du Udalak. Arrazoi praktikoak bultzatuta izan da aldaketa, San Antonetan eguraldia eskas xamarra eta jende gutxi biltzen baita.

Bihar, hilak 13, eguerdiko 12etan, Filatelia Elkarteak antolatutako XVI. Filatelia erakusketa inauguratuko da. Aurten, Elgoibarren 650. urteurrena dela-eta, zigilu berezia egin dute, hilaren 13 eta 14an

erabili ahal izango dena. Erakusketa, berriz, hilaren 21era arte egongo da irekita. Igandean, hilak 14, Taupadak "Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile" antzezlanaren antzeztuko du arratsaldeko 4,30etan Herriko Antzokian. Hilaren 16an, Imanol kantari ezagunak eta Zigor Gazkez elgoibartarrak kantaldia eskainiko dute gaueko 10,30etan Herriko Antzokian. San Anton egunean, hilak 17, Ertzantzaren Bandak kontzertua eskainiko du urtero bezala Herriko Antzokian, eta haurrentzat, erraldoi eta buruhandiak eta jolas parkea egongo dira goizez eta arratsaldez.

Iñaki Pérez, Tene Mujikan saritua

Iñaki Pérez Armendia elgoibartarrak Debako Udalak antolatzen duen Tene Mujika ipuin lehiaketan bigarren saria irabazi du. 42 urteko matematika irakasle honek idatzitako "Sanguero artean" izeneko ipuinak Mexiko eta EEBBen arteko mugako gorabeherak kontatzen ditu. Ipuin honek beste sari bat ere jaso du, Zumaiaiko Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketako bigarren saria, hain zuzen.

Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketan sari banaketa

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Idaz Lehiaketan sari banaketa ekitaldia egingo du datorren ostegunean, hilak 18, Herriko Antzokian arratsaldeko 7etan. Bi ataletan banatuko dira sariak, batetik, Etxegiña bertso-paper lehiaketari dagokiona eta bestetik, prosa mailari dagokiona. Ekitaldian zehar majia berria eta klasikoa ikusteko aukera izango da Alberto magoaren eskutik.



Bitxidenda San Frantzisko 26. ☎ 74



Urrezko erlojuen zozketaren zenbakiak:

GIZONEZKO ERLOJUA

Zenbaki saritua: **D seriea 004193**

Erretserbakoa: **D seriea 003756**

EMAKUMEZKO ERLOJUA

Zenbaki saritua: **A seriea 004455**

Ligatzen ba al dakizu?

1.- Zein da ligatzen hasteko adinik aproposena?

- a. 30 urte arte ez genuke ligatzearekin pentsatu behar. Ikasketak amaitu eta lanean hasi eta gero.
- b. Hau igeri egitea bezala da. Txiki-txikitatik hasi behar da ondo ikasteko.
- c. 17-18 urte inguruan hasten da horrelako lanari ekiteko ordua.

2.- Erroskarik jan al duzu sekula?

- a. Errege egunean bakarrik.
- b. Askotan, eta barruan sorpresa dutenak gainera.
- c. Bai, baina nahi nukeena baino gutxiago.

3.- Gustukoaren aurrean nola erreakzionatzen duzu?

- a. Gorritu eta alde egiten dut.
- b. Berarengana hurreratu eta gerritik helduta ahoan musukatzen dut.
- c. Apur bat lotsatuta, hurbildu eta eguraldiari buruz hitzegiten hasten naiz.

4.- Larunbat gava da. Zerbait berezirik kalera irten aurretik?

- a. Ez, larunbat gauetan telebista ikusten gelditzen naiz, biharamunean nire gurasoekin mendira joateko.
- b. Dutzatu eta desodorantea bota ondoren, armarioan dudan onenarekin ateratzen naiz kalera. Poltsikoan air-bag txanoa lagun dudala, noski.
- c. Arratsaldeko poteoan pasatzen naizenean oherako bidea hartu behar izaten dut derrigorrez. Gainontzean, ahalegintzen naiz zerbait berezia izaten.

5.- Nola esango zenioke neska/mutil bati maite duzula?

- a. Lagun bati esango nioke, bidea prestatzeko.
- b. "Lo que necesitas es amor" programara joango nintzateke nire mai-tasunaren handitasuna adierazteko.
- c. Larrosa bat oparituko nioke aitoren tarjeta bezala.

6.- Zein da zure enkanturik handiena?

- a. Egunero begiratzen dut ispilura baina oraindik ez dut ezer berezirik aurkitu. "Savin" bezala korrientea naiz.



- b. Amonak esan ohi didan bezala, enkanto bat naiz oso-osorik.

- c. Baditut bat edo beste baina nire lige egunetako arma sekretuak dira.

7.- Ligatzeko orduan zeri begiratzeko diozu batez ere?

- a. Bihotz onekoa bada nahikoa da.
- b. Neska/mutil ederrak gustatzen zaizkit eta lantzatuak badira, hobeto.
- c. Intelijentzia eta jende artean egoteko tenplea dira gehien estimatzen ditudanak.

8.- Sexu bereko lagun batek barruak irakiten jartzen badizu:

- a. Lagun hori ez ikusteko ahalegin guztiak egiten ditut.
- b. Ligatzeko aukerak bikoiztu egin zaizkidala pentsatu eta poztu egingo nintzateke.
- c. Kostata baina berarengana joango nintzateke zer gertatzen zaidan esate-

ra.

9.- Neska/mutil batekin irteten zara azken lau urteotan. Derrentean, gustuko duzun beste pertsoana bat ezagutzen duzu:

- a. Nire bihotza eta bestelakoak pertsona bakarrenak dira.
- b. "Menage a trois" bat egitea proposatuko nieke biei.
- c. Ez da erraza. Zain egongo nintzateke bietako nork tiratzen didan gehien ikusi arte.

10.- Zure bikoteak utzi egin zaitu hiru urte eta gero:

- a. Desesperatuta, astebukaeretan mozkortzeari ekiten diot.
- b. Bera uzteko tenbilan ni ere. Hobeak asko daude.
- c. 15 egun triste egon ondoren, besteekin ligatzeko ahaleginean hasten naiz.

EMAITZAK: zenbatu erantzun bakoitzean zein den gehien aukeratu duzun letra. Ondoren, begiratu beheko taula.

- a. Noiz ahaztu behar dituzu zure konplejuak eta zalantzak? Horrela jarraituz gero, musu bat zer den ez duzu inoiz jakingo. Ez eta beste ezer ere, noski. Gaztelaraz esaten den bezala, "suelte la melena".

- b. Ahotik ateratzen zaizu ahalegin guztia! Ez al da izango sekula ezer egin ez baina denen aurrean oilar bihurtzen den horietakoa zarela? Julio Iglesias-ek ere 1.000 emakume baino gehiagorekin oheratu dela esaten du. Sinesten al diozu?

- c. Tira, ez hotz ez bero. Gehienak zure multzoan sartzen dira. Halere, piskat ausartagoa izatea ez litzaizuke gaizki etorriko. Zuk beste edozeinek beste merezi eta egin dezakezu. Animo!

Salerosketak

RETROPROIEKTORE bat eta "Le sana frontieré" frantzeseko LIBURUA erosi nahi ditut.
☎ 7404 59

HOSPITALEKO OHE BAT saltzen dut.: manibeladuna, koltxoi FLEX eta mesillarekin.
☎ 7422 21

ESKIAK SALGAI. Dynastar 1,85 m. Tyrolia loturak. Egoera onean. Nordica bota onak (41-42)
☎ 74 18 55 (gauean)

Suzuki Savage MOTORRA salgai. 2000 km. 650 cc.
☎ 74 02 24 / (908) 77 59 33

ZIBRO KAMIN markako estufa bat saltzen dut. Berria.
☎ 19 16 39

DERBI 75 C.C. trukatua salgai. Egoera oso onean.
☎ 15 04 41

Etxebizitzak

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatua.
☎ 77 05 90 Angel Mari

Pisu bat KONPARTITU nahi nuke Elgoibarren.
☎ 74 14 96 Izaskun

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.
☎ 10 11 52 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.
☎ 74 37 68

ETXE BAT SALTZEN da DEBAn. Amueblatua. Hondartzatik gertu.
☎ 74 22 83

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

Lana

Emakume helduak ETXEKO LANAK EGIN EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko lituzke.
☎ 74 32 51 Pili

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 74 29 56 Gema

Garajeak

GARAJE ITXI BAT saltzen da, ganbaratxoarekin, pista beltzean.
☎ 74 08 05

Garaje bat alokatu edo erosi nahi dut HERRI ERDIAN.
☎ 74 15 73

Garaje ITXI BAT SALTZEN da Arregitorren.
☎ 74 30 81

Garaje bat ALOKAIRUAN HARTUKO NUKE.
☎ 74 23 01 Igone

Garaje bat ALOKATZEN DUT, marraduna, San Roken, Aterpe taberna azpian.
☎ 74 30 33

GARAJE ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.
☎ 58 40 24
Gauetz deitzea hobe

GARAJE ITXI BAT saltzen da King-Kong-en.
☎ 74 06 22

Bestelakoak

Urrezko PULTSERA bat galdu nuen Deban, urtarrilaren 6an.
☎ 75 60 54 Inma gaueko 8etatik aurrera

Urrezko lepoko bat galdu zitzaidan abenduaren 30ean. Katea eta perladun gurutzeta.
☎ 74 06 51

Pitxintxu aurrean LAUBURU BAT topatu nuen hilaren 9an. Udaltzaingoan dago.

IKASLE IPAR AMERIKARRAK HARTZEKO prest ldauden familiekin harremanetan jarri nahi dugu, uda edo urtebete igarotzeko.
☎ 74 15 14 Maite

WELCOME ingeles ikastaroak, BBB eta UBI EEBBetan eta Inglaterran. Au-pair EEBBetan.
☎ 74 15 14 Maite

Urrezko eskuturreko bat topatu genuen hilaren 4an Leku Ederreko bankuetan. Udaltzaingoan utzi dugu.

Karitasek BI OHE DAUZKA behar dituenari emateko.
☎ 74 15 09

3etatik 4etara asteen 3 ORDU AEROBIC egiten dugun talde bat gara. Tituludun irakaslearekin. Interesatuta bazaude deitu
☎ 74 05 73 (9etatik 12etara)

Zorionak

ION eta AMAIA, bihar eskontza kateak estrenatu behar dituzue. Ez daitezela astunegiak izan eta ea uhertu gabe urte askotan mantentzeko gauza zareten. ZORIONAK!

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki74 34 74

12 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Mientras dormías”

13 LARUNBATA

12,00 FILATELIA ERAKUSKETA

Gaia: Elgoibarko 650. urteurrena

✓ Kultur Etxean

Hilaren 21era arte

19,30-22,15 ZINEA

“Mientras dormías”

14 IGANDEA

16,30 ANTZERKIA

“Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile”

Taldea: Taupada

✓ Herriko Antzokian

19,30-22,15 ZINEA

“Mientras dormías”

15 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Mientras dormías”

16 ASTEARTEA

20,00 INTSUMITUEN PLATAFORMAREN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,30 IMANOL ETA ZIGOR GAZKEZekin KANTALDIA

✓ Herriko antzokian

17 ASTEAZKENA

San Anton eguna

11,00 MEZA NAGUSIA

✓ San Bartolome parrokian

11,00 HAURENTZAKO PARKEA

✓ Plaza handian

(Eurria egiten badu kiroldegian)

12,30 ERTZANTZAREN BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 HAURENTZAKO PARKEA

✓ Plaza handian

16,30 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK

Herriko Dultzaineroekin

16,30 ZINEA

“Angeles”

19,30-22,15 ZINEA

“Carrington”

18 OSTEGUNA

19,00 ELGOIBARKO IZARRA IDAZ LEHIAKETEN SARI BANAKETA

✓ Herriko Antzokian

19 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Homicidio en primer grado”

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
13, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
14, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
15, astelehena:	Yudego	Zabaleta
16, asteartea:	Yudego	Zabaleta
17, asteazkena:	Etxeberria	Etxeberria
18, osteguna:	Yudego	Yudego
19, ostirala:	Ormazabal	Escala

OKINDEGIA:

14, igandea: FOTERO

17, asteazkena: IDARRAGA

ZineA

Mientras dormías

Zuzendaria: Jon Turteltaub
Antzezleak: Sandra Bullock, Bill Pullman, Peter Gallagher, Peter Boyle.

Lucyk denetik du bizitzan, baina zer-bait falta zaio. Chicagoko metroko takilan egiten du lan eta egunero ikusten duen gizon batekin maitemintzen da. Baina ez du ezagutzen. Behin, lapurreta egingo diote gizonari eta tren pasatzera doanean trenbidera erortzen da, baina Lucyk garaiz salbatuko du. Ospitalean koman dagoela denek uste dute Lucy dela bere emaztegia.



Carrington

1915. urtea. Europa I. Mundu Gerratean murgildua dago. Lytton Strachey homosexual konbetzitua da. Mundu hori utzi eta Virginia Wolf-en ahizpa, Vanessa Bell eta honen senarra Clive ezagutuko ditu. Areto dotore batean sartu eta mutil bat delakoan, Dora Carrington pintore gaztearekin liluratuta geratzen da. Bien artean harreman estua sortuko da.



EL GOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

96an ere SAN ANTONi ongi etorria emanaz.


JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" **Edari Banatzailea**



GURELESA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32



Ordutegi berria

Irteerak ELGOIBAR-tik

ELGOIBAR-BILBO		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,45	7,45	
8,45	8,45	8,45
		9,45
14,30	14,30	14,30
17,45	17,45	
		18,05
		19,45

ELGOIBAR-ONDARROA (Deba eta Mutrikutik)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
11,30	11,30	11,30
13,30	13,30	
16,30		
18,30	18,30	
20,30	20,30	20,30
		22,55

ELGOIBAR-DONOSTIA		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
8,45	8,45	
8,55	8,55	
		9,45
		10,25
10,45	10,45	
13,45	13,45	13,45
13,55	13,55	
14,55	14,55	
15,15		
18,45	18,45	18,45
19,55	19,55	19,55
20,45	---	20,45

ELGOIBAR-AZPEITIA (Azkoititik)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
		10,30
12,30		
	13,30	13,30
15,30		
22,00	22,00	22,00

ELGOIBAR-ARRASATE (Bergaratik)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
8,40	8,40	
13,00	13,00	
15,30	15,30	
18,30	18,30	18,30
20,00	20,00	
21,15	21,15	21,15

ELGOIBAR-GASTEIZ		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
8,40	8,40	
18,30	18,30	18,30

Irteerak ELGOIBAR-era

BILBO-ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
	9,30	
10,30	10,30	10,30
11,30		
12,30	12,30	12,30
14,00		
14,30		
15,30		
17,30	17,30	
19,30	19,30	19,30
21,00	21,00	21,00
		22,00

ONDARROA-ELGOIBAR (Mutriku eta Elgoibartik)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,15	7,15	---
8,15	8,15	8,15
	9,15	---
14,00	14,00	14,00
17,15	17,15	
	---	19,15

DONOSTIA-ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,30		
8,15	8,15	
9,30		
12,30	12,30	12,30
14,00		
15,00	15,00	
17,30	17,30	17,30
18,00	18,00	18,00
19,30	19,30	19,30
20,45	20,45	20,45

BERGARA-ELGOIBAR (Azkoititik)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,35	7,35	---
8,35	8,35	
---	---	10,05
13,35	13,35	---
14,35	14,35	---
19,35	19,35	19,35

GASTEIZ-ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
6,30	6,30	
		9,00
12,30	12,30	
18,30	18,30	18,30

ARRASATE-ELGOIBAR (Bergaratik)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,20	7,20	
8,20	8,20	
		9,50
13,20	13,20	
14,20	14,20	
19,20	19,20	19,20

INFORMAZIORAKO: 902 10 12 10